

LETRA GOZOAK

LETRA GOZOAK



Lur-gaiñean erri bakotxak ditu bere doaiak, au da: era berezia gauzak zentzunez artu, barruan okiñak ogia egitean lez irauli ta ortik datozañi pentsamentuak, entiak eta erakundeak eratu ta antolatzeko. Au doai aparteko bat dani ezin daikagu ukatu. Arima era-kundea deritxagu oni, ta erraza baten arnasa dogu berau.

Arima ori, ostera, izkuntzaz, berbaz azaleratzen dogu, barruan dâu-kaguna itzez adierazo oi dogu-ta. Abere ta piztiak ez dabe onelako gaitasunik, ez dabe onako cloairik: ez dabe berbarik egiten, eta beraz ez dauskue euren barrua agertzen. Erreiñu bat-batekoak izanik be, or-

zelako aldea gizonaren eta beste abereen artean! Gizonak itz-egitean dau, abreak ez dau indarrik barruan daroana guri aitzen emote.

Euskaldunok be, ba-dogu geure arima, geure arnasa berezia. Eta guk arima ori euskeraz adierazten dogu; euskera dogu mintzabide, oldoztu ta itz-egiteko euskal era berezia.

Euskal gogoa, arimea! Zer ete dogu? Euskaldunok dogun zerik ederrena. Euskalduna euskaldun orren bitartez bait da, ta ori barik ez gintzakez euskaldun izango, ez noski! Euskera galdu ezkero, eus-

kal gogo orrenak be egin dau. Orikaitik, ba, gabiltzan kontuz.
Guk era askotara adierazten do-
gu geure gogoa, barrua, arimea,
geure izatea. Baiña garbien eta ar-
gen euskeraz egiñik. Eta zer, edo
ork argertzen ete dausku garbien
euskal gogoa? Bertsolariak; ez izan
dudarik. Auxe dogu gure arnasa-
ren adierazlerik bikaiñena.

Bertsolariak euskeraz berba egin
ezzik, euskeraz kantatzen ditu be-
re bertsogoriak. Euskal odoleko
asko dabiltz munduan zear, or-
men sakabanaturik: pelotariak
eta kirolzaleak, esate baterako.
Baiña pelotariak ja geienak euskal-
dunak diran arren, ez dira beti eus-
keraz mintzatzen; bertsolaria, ba-
riz, beti dogu euskaldun: etxeak,
soloan, plazan, errian eta erbes-
jean.

Gure bertsolarietatik asko erbes-
jean be oiñak ipiñi bearra izan da-
te, batzuk eurak naita, beste ba-
tzuk ortara bearturik. Iparragi-
ñeik, Otaño'k... arrotz ogia jan
eben, mingotsa ta gogorra. Alan
gia guzti be, egiazko euskaldun
raun eben aldioro ta nun-nai: eu-
ren barruko zauskada biziak aitzen
smokeran, euskeraz jarduten eben.

Bertsolariak izan dira, ta ditugu
gaur be, gizonaren deadarra ez-
ezik, erri oso baten naia ta deadar-
ra gizaldiz gizaldi ekarri ta Iuzatu
dauskuenak. Oneik izan dira len
eta orain, euskerearen bitartez,

erriaren gogozko kezka ta gorabe-
rak adierazten arduratu diranak.
Noizkoa ete dogu euskera? Eta
Euskalerria? Nok daki? Auxe,
orraitío, ba-dakigu: bertsolaria
izan zala euskerearen jaiotzan tes-
tigu, beronen egun-sentziaren goiz-
goizean izan be. Eta arrezkero guz-
tian. Bai, gerora, urtez urte ta gi-
zaldiz, bertsolaria dogu ari lagun-
tzen dautsona, zoritzar eta zorio-
nean beti indar barriz adoretzen.

Ez ete doguz txalotu bear orre-
lako gizasemeak? Alegiñak egitera
beartuak ez ete gagoz euskaldun
guztiok ditugun doai ederrok zain-
du ta indartzeko?

Oiz

ARDATZA

ETA

ARIA

EMATEKO TREÑA

GOGORRENAK...



Ada. 26 de abril

ERMUA - VIZCAYA